# ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA
IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS

## INFORMAZIO OROKORRA
INFORMACIÓN GENERAL

**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-ICIO-01-DN.495 //**

| **ZERGA-EGITATEA**<br>**Noiz eskatzen da zerga?** | **HECHO IMPONIBLE**<br>**¿Cuándo se exige el impuesto?** |
|---|---|
| EIOZ edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteagatik eskatzen den zerga da, baldin eta horretarako obra-lizentzia edo hirigintza-lizentzia lortu behar bada, lizentzia hori lortu den ala ez, edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztea eskatzen bada. | El ICIO es un impuesto que se exige por la realización de cualquier construcción, instalación u obras para la que se exija obtención de la correspondiente licencia de obras o urbanística, se haya obtenido o no dicha licencia, o para la que se exija presentación de declaración responsable o comunicación previa. |
| **SORTZAPENA**<br>**Zein data hartzen da kontuan zergaren eskakizuna zehazteko?** | **DEVENGO**<br>**¿Qué fecha se tiene en cuenta para determinar la exigencia del impuesto?** |
| Eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean sortzen da zerga, nahiz eta bidezko lizentzia lortu ez. | El impuesto se devenga en el momento de iniciarse la construcción, instalación u obra, aun cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia. |
| **SUBJEKTU AKTIBOA**<br>**Nork eskatzen du zerga?** | **SUJETO ACTIVO**<br>**¿Quién exige el impuesto?** |
| Eraikuntzak, instalazioak edo obrak udal-mugartean egiten direnean, Getxoko Udalak eskatuko du EIOZ, eta Getxoko Udalari dagokio lizentzia ematea. | El ICIO será exigido por el Ayuntamiento de Getxo cuando las construcciones, instalaciones u obras sean realizadas dentro del término municipal, correspondiendo a Ayuntamiento de Getxo la expedición de la licencia. |
| **SUBJEKTU PASIOBOA**<br>**Nori eskatzen zaio zerga?** | **SUJETO PASIVO**<br>**¿A quién se exige el impuesto?** |
| Horren ordezko subjektu pasibo izango dira lizentziak eskatzen dituztenak, erantzukizunpeko adierazpenak edo aurretiazko jakinarazpenak aurkezten dituztenak edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak. | Tendrán la condición de sujetos pasivos sustitutos del mismo quienes soliciten las correspondientes licencias o presenten las correspondientes declaraciones responsables o comunicaciones previas o quienes realicen las construcciones, instalaciones u obras. |
| **ZERGA-OINARRIA**<br>**Zein balioren gainean ordaintzen da zerga?** | **BASE IMPONIBLE**<br>**¿Cuál es el valor sobre el que se paga el impuesto?** |
| Zergaren zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostu efektiboak osatzen du eta, ondorio horietarako, obraren exekuzio materialaren kostua hartuko da halakotzat.<br><br>Zerga-Oinarriaren parte dira obratik bertatik bereizi ezin diren elementu tekniko gisa eraikitzen, jartzen edo egiten diren ekipoak, makinak eta instalazioak, obra- edo hirigintza-lizentzia eskatzen den proiektuaren parte direnak eta egindako eraikinarekiko nortasun propiorik ez dutenak.<br><br>Honako hauek ez dira zerga-oinarriaren barruan sartzen: BEZa eta gainerako zergak, obrarekin zerikusia duten tasak, prezio publikoak eta tokiko ondare-prestazio publikoak, profesionalen ordainsariak eta etekin industriala. | La base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquélla.<br><br>Forman parte de la Base Imponible los equipos, maquinaria e instalaciones que se construyen, colocan o efectúan como elementos técnicos inseparables de la propia obra, e integrantes del proyecto para el que se solicita la licencia de obras u urbanística y que carezcan de la identidad propia respecto de la construcción realizada.<br><br>No forman parte de la base imponible el IVA y demás impuestos, las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas con la obra, los honorarios de profesionales, ni el beneficio industrial. |
| **KARGA-TASA**<br>**Zer portzentaje ordaindu behar diot Udalari?** | **TIPO DE GRAVAMEN**<br>**¿Qué porcentaje tengo que abonar al Ayuntamiento?** |
| Udal bakoitzak urtero finkatzen du karga-tasa bere Ordenantza Fiskaletan.<br><br>Zerga arautzen duen Foru Arauak aurreikusitako mugen arabera, karga-tasa hori ezin da % 5 baino handiagoa izan. | El Tipo de Gravamen es fijado anualmente por cada Ayuntamiento en sus Ordenanzas Fiscales.<br><br>Conforme a los límites previstos por la Norma Foral reguladora del impuesto, dicho tipo de gravamen no puede exceder del 5%. |
| **ZERGA-KUOTA**<br>**Zenbat ordaintzen da zergagatik?** | **CUOTA TRIBUTARIA**<br>**¿Cuánto se paga por el impuesto?** |
| OHZren tributu-kuota honako hauek kontuan hartuta kalkulatzen da:<br><br>- Zerga-oinarria.<br>- Getxoko Udalak ezarritako karga-tasa. | La cuota tributaria del IBI se calcula teniendo en cuenta:<br><br>- La Base Imponible.<br>- El tipo de gravamen fijado por el Ayuntamiento de Getxo. |

**Kontrol Kodea**
Código de Control

**GEF-GET-ICIO-01-DN.495 //**

| **KUDEAKETA**<br>**Nola kudeatzen da zerga?** | **GESTIÓN**<br>**¿Cómo se gestiona el impuesto?** |
|---|---|
| Lizentzia ematean edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztean, behin-behineko likidazioa egingo da, eta interesdunak aurkeztutako aurrekontua hartuko da kontuan likidazio horretan. | Al conceder la licencia o presentar la declaración responsable o comunicación previa se practicará una liquidación provisional en la que se tendrá en cuenta el presupuesto presentado por el interesado. |
| Eraikuntza, instalazioa edo obra amaitutakoan, administrazioak egiaztatu ondoren, Udalak behin betiko likidazioa egingo du, subjektu pasiboari eskatzen dion kostu erreala eta efektiboa kontuan hartuta, edo, hala badagokio, bidezko zenbatekoa itzulita. | Una vez finalizada la construcción, instalación u obra, previa comprobación administrativa, el Ayuntamiento practicará la liquidación definitiva teniendo en cuenta el coste real y efectivo de la misma exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que corresponda. |
| **KUOTAREN HOBARIAK**<br>**Ba al dago inolako deskonturik zergaren kuotan?** | **BONIFICACIONES DE LA CUOTA**<br>**¿Existe algún tipo de descuento en la cuota del impuesto?** |
| Bai. Getxoko Udalak hobari hauek ditu onartuta: (Bateraezinak dira euren artean. Bat baino gehiago badaude, onuragarriena aplikatuko da) | Sí. El Ayuntamiento de Getxo tiene aprobada las siguientes bonificaciones: (Incompatibles entre sí. Si concurren varias se aplica la más favorable) |
| a) % 95 arteko hobaria, egoera sozial, kultural, historiko-artistiko edo enplegua eta aldi baterako ostatua sustatzeko inguruabarrak izateagatik udal-interes edo -onura berezikotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edo obretarako. | a) Hasta el 95% para las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo y del alojamiento transitorio que justifiquen tal declaración. |
| b) % 90eko hobaria, ezgaituen sarbide- eta bizigarritasun-baldintzak errazten dituzten obretarako. | b) Bonificación del 90% para las obras que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados. |
| c) % 90eko hobaria eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak dituzten eraikuntza, instalazio edo obretarako. | c) Bonificación del 90% para las construcciones, instalaciones u obras en las que se incorporen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar. |
| **ZERGAPEAN EZ EGOTEA ETA SALBUESPENA**<br>**Noiz ez da eskatzen zerga?** | **NO SUJECIÓN Y EXENCIÓN**<br>**¿Cuándo no se exige el impuesto?** |
| **Zergapetuta ez dauden salbuesten diren kasuetan, zerga ez da eskatzen eta, beraz, ez dago ordaindu beharreko zerga-kuotarik.** | **En los supuestos de no sujeción o exención, el impuesto no se exige y por lo tanto no existe cuota tributaria a pagar.** |
| **Honako hauek daude lotuta, baina salbuetsita:** | **Están sujetos pero exentos:** |
| a) Estatua, Autonomia-erkidegoak, Toki-erakundeak eta Bizkaiko Lurralde Historikoa jabe diren edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, baldin eta eraikin, instalazio edo obra horiek Estatuaren, autonomia-erkidegoen, toki-erakundeen eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren mende badaude eta zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko, herrien eta haien hondakin-uren saneamendurako erabiliko badira, nahiz eta horien kudeaketa Erakunde Autonomoek egin, inbertsio berriko obrak zein kontserbaziokoak izan. | a) La realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños el Estado, las Comunidades Autónomas o las Entidades Locales y Territorio Histórico de Bizkaia que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por Organismos Autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva como de conservación. |
| b) Egoitza Santua, Gotzainen Biltzarra, Elizbarrutiak, parrokiak eta beste lurralde-barruti batzuk, erlijio ordenak eta kongregazioak eta bizitza kontsakratuko institutuak eta horien probintziak eta etxeak. | b) La Santa Sede, la Conferencia Episcopal, las Diócesis, las Parroquias y otras circunscripciones territoriales, las Órdenes y Congregaciones Religiosas y los Institutos de Vida Consagrada y sus provincias y sus casas. |